

## ALDARTE

“Centro de Atención a Gays, Lesbianas y Transexuales” C/ BERASTEGI 5-5 Dpto 8 y9

48001 Bilbao

[www.aldarte.org](http://www.aldarte.org)



## AMA ETA LESBIANEN HAURRAK ERREGISTRO ZIBILEAN IZEN EMATEKO JOKABIDE PROTOKOLOA

Lesbiana nahiz bisexualen arteko bikoteen arteko haurrak erregistro zibilean izen emateko orduan gertatzen diren arazoan aurrean, informazioa argitzeko ALDARTEK LGT familiei zuzenduta **protokolo** bat burutu du.

14/2006 legea ezarri baino lehenago emakume bik osatutako bikoteetan, ama ez biologikoak, haurra jaio ondoren, adopzio prozedura hasi behar zuen.

Aipatutako legea onartuta, haurrak eskubidea du, jaio den momentutik, erregistro zibilean ama bien ume bezala erregistratzeko.

Nahiz eta legea onartu makina bat izan dira ama lesbianen kexak, haurra erregistro zibilean izen emateko orduan, batzuen ezjakintasunagaitik gehienak. Besteak beste, informazio falta eta eskubideen urraketa, honek familiarengan suposatzen dituen arazo eta eragozpenak medio.

### Zer egin behar da arazorik ez gertatzeko?

1. Haurra erregistratzeko lekuan eragotzi egiten bazaituzten edota tramiten berririk ez badaukaten aipatu edo erakutsi ondorengo artikulua, ESKUBIDE hau erregulatzen duena baita:

*“7. artikulua. Laguntza bidezko ugalketa tekniken bidez jaiotako haurren filiazioa.*

3. *Emakumea ezkondata dagoenean, ez banatuta edo izatezko bikote bezala, beste emakume batekin, azken honek Erregistro Zibilaren arduraduraren aurrean adierazi*

**Colabora:**



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

## ALDARTE

“Centro de Atención a Gays, Lesbianas y Transexuales” C/ BERASTEGI 5-5 Dpto 8 y9

48001 Bilbao

[www.aldarte.org](http://www.aldarte.org)



*dezake, ezkonduen etxebizitzan, onartu egiten duela haurra jaitzean, bere alde zehaztea haurraren filiazioa. ”*

### Zein baldintza bete behar dira?

- a) Ezkonduak egoteak. Horrela adierazi behar da Famili liburuan.
  
- b) Artikuluak laguntza bidezko ugalketa tekniken legea aldatu duenez, tratamendua egin zenuten zentruaren dokumentazioa eta bien onespina aurkeztu behar da.
  
- c) Erregistro batzuek “*aurretiko agerpena*” eskatzen dute beste batzuek ez. (Horrela, haurra jaio baino lehenago erregistrora joan beharko litzateke, bera ere ama legala izendatzeko eskatzeko)

Aholku gisa, haurra jaio baino lehenago, hurbildu zaitetze aukeratutako Erregistro Zibilera eta informatu eskatzen dituzten dokumentu eta baldintza denez. Horrela, haurra jaitzerako prest izando duzue dena eta ez da inolako oztoporik egongo.

**Colabora:**



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia